


Euskal AEko industriako prezioek % 1,4 egin dute gora 2022ko irailean, aurreko hilaren aldean

2021eko irailarekin alderatuta, industria-prezioak % 20,9 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioek % 1,4 egin dute gora 2022ko irailean, aurreko hilaren aldean. Iraileko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena, % 20,9koa izan da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du ezen, 2022ko irailean, honako sektore hauek izan dituztela hazkunderik handienak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 9,3 gora), *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 2,9) eta *Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa eta Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria* (% 1,1 bietan). Aitzitik, prezioetan hila bete arteko jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 3,3 behera), *Farmaziako produktuen fabrikazioa* (% 2,8) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,0).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, 2022ko abuztuarekin alderatuta prezioek izan dituzten aldakuntzek zeinu positiboa izan dute: *Energiaren* prezioak % 3,3 igo dira, eta *Kontsumo-ondasunenak*, orotara, % 1,0, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 1,0ko igoerak eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 0,6ko igoerak eraginda. *Bitarteko ondasunak* % 0,5 igo dira, eta *Ekipo-ondasunak* % 0,3.

Urte arteko terminoetan, 2022ko irailean 2021eko irailaren aldean, prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 48,6), *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 44,7) eta *Industria kimikoa* (% 30,5). Prezioetan jaitsierarik izan duen sektore bakarra *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* izan da, % 3,5 jaitsi baita.

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da guztietan: *Energiaren* prezioak % 47,7 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 18,1 eta *Ekipo-ondasunenak* % 3,6. *Kontsumo-ondasunak*, orotara, % 8,4 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak* % 9,1 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak* % 4,4.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	135,2	1,4	20,9
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	112,6	0,8	5,2
Manufaktura-industria	128,9	-0,2	16,1
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	121,6	1,0	10,7
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	100,4	-1,0	-3,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoa	140,4	2,9	26,8
Kokeak eta petrolioaren fintzen	168,2	-3,3	44,7
Industria kimikoa	155,7	-0,2	30,5
Botiken fabrikazioa	120,2	-2,8	9,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	109,3	-0,1	8,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	139,2	0,2	19,3
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,8	1,0	5,5
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	112,8	0,0	5,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,6	0,1	4,0
Garraiako materialen fabrikazioa	106,2	0,6	0,3
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	112,1	0,3	3,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	173,7	9,3	48,6
Ura	121,5	-0,3	9,0
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	120,1	1,0	8,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	111,5	0,6	4,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	121,5	1,0	9,1
Ekipo-ondasunak	113,0	0,3	3,6
Bitarteko ondasunak	131,6	0,5	18,1
Energia	175,7	3,3	47,7

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Urriaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie egindako ahaleginagatik lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, iraileko indizea labinaren % **93,91ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62